

4. DIRU SARRERAK

Irabazi iturriak lortzeko idea finkatu egin dugu. Hasierako kapitala gure artean lortu beharko dugu. Horretarako, bankuekin jarri beharko gara kontaktuan eta akordio bat lortu ezean, gure boltsikoko dirua jarri beharko dugu. Hori bai, kantitate nahiko handia izango da. Hala ere diru falta izango bagenu edo diru gehiago beharko bagenu gure ideia aurrera eramateko, zozketak eta aktibitateak antolatuko genituzke, dira apur baten bila. Azkenengo aukera, bankura itzultze izango litzateke. kreditu baten bila. Kreditua pixkanaka joango ginateke ordaintzen irabazten ditugun etekinekin.

Gure lehendabiziko diru sarrerak aplikazioaren erosketetatik etorriko dira. Hilero 19,99 €-koa izango da harpidaketa pertsona bakoitzarentzat, baina prezio hau murriztu ahalko da lanak aplikazioa igotzen badituzu eta beste erabiltzaileentzat baliogarria izanda 9,99€-tara aldatuko da. Gure ustez garrantzitsua da aplikazioan erabilgarria izatea eta lanak eta norberaren ezagutza partekatzea. Horregatik, aplikazioan parte hartzea sarituko dugu hilabeteko harpidetza 9,99€-tan jartzen.

Beste diru sarrera garrantzitsu bat, babesleak izango dira. Marka txikiak eta hasieran daudenekin lan egingo dugu eta gure aplikazioan sustatu egingo ditugu. Gure ustez, oso garrantzitsua eta beharrezkoa da proiektu txikien arteko laguntza aurrera eramatea. Babesletatik irabaziko dugun dirua diru sarreren %35-40 izatea espero dugu. Gure etorkizunerako asmoa gero eta marka handiagoekin lan egitea eta kolaboratzea da. Honek gure ospea eta beste enpresena handituko du, eta baita baldintza ekonomikoa hobetuko du, inbertsio gehiago egitea posible bihurtuz.

Ikasturte amaiera bakoitzean gure bezeroei galdetegi bat egingo diegu. Galdetegi honen helburua ikaslearen ikuspegia aplikazioarekiko eskuratzea da. Honetarako, hobekuntzak, proposamenak, ideiak eskatu egingo dizkiegu. Idea hona dela uste dugu horrela urtero gure aplikazioa hobekuntzak jasango ditu eta pixkanaka ikasleak erosoago sentituko dira aplikazioa erabiltzean.

Diru sarrerekin dugun aurreikuspena nahiko positiboa da. Hasieran, inbertsio handia egin beharko dugunez, ia ez dugu ezer irabaziko, edo seguraski dirua galduko dugu. Baina pixkanaka hilabeteak pasatzen diren bitartean gero eta diru gehiago irabazten joatea espero dugu. Hilabete bakoitzean %2-ko irabaziak igotzea espero dugu. Adibidez, hilabete baten 1000 euroko irabaziak izaten baditugu, hurrengo hilabetean 1020 euro irabaztea espero dugu. Prebisio hau, lehenengo urterako dira. Urteak pasatzen diren urrenean gero eta % handiagoa irabaztea espero dugu.

